

N

.U

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko apirilak 4

Usurbil, 17. Zenbakia



Merkatuaren gainbehera?

HILDAKOAK



Eleuterio Alsua Azpiroz
(Aginaga)
(1997-3-18)

EZKONTZAK

Aitor Aierbe Maiztegi
(Usurbil)
eta
Elena Bakaikoa Uranga
(Tolosa)
(1997-3-23)

JAIOTZAK

Sohütan eraikitzen diren Eperra ikastolaren aldeko kanpainak aurrera darrai. Usurbilen jadanik **92.000 pezeta** bildu dira. Helburutzat jarri diren 500.000 pezetara iristeko bide luzea gelditzen da, eta edonork luza dezake 1.000 pezetako laguntza.

Euskadiko Kutxa: 140.0.01113.3
Gipuzkoa Donostia
Kutxa: 2101 0069 1600.1062909



Jon Guadix Dominguez (97-3-13) Puntapax kalea


Bai, esan?

- | | | | |
|--------------------------|----------|----------------------------|----------|
| • Udala | 37 19 51 | • Taxi geltokia | 36 21 78 |
| • Udaltzaingoa | 36 11 12 | • D.Y.A. | 46 46 22 |
| • Anbulategia | 36 20 13 | • Gurutze Gorria | 27 22 22 |
| • Udarregi ikastola | 36 12 16 | • Gure Pakea egoitza | 37 32 28 |
| • Agerialdeko ikastetxea | 36 38 95 | • Gure Elkartea egoitza | 37 17 51 |
| • Oiarde kiroldegia | 37 24 98 | • Arrate egoitza | 36 63 40 |
| • Zumarte musika eskola | 37 15 94 | • Eusko Tren informazioa | 47 09 76 |
| • Etumeta euskaltegia | 37 20 01 | • Noaua! aldizkaria | 36 03 21 |



Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Dagoeneko 325 usurbildar bazkide ditu Noaua!-k
Zu ere egin zaitez bazkide!



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.
e-mail: Noaua.
mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Nere Amenabar, Ines
Kamino, Leire Atxega, Iñaki
Labaka, Iratxe Begiristain,
Begoña Zubiria, Amagola
Mujika, Xabier Arregi, Pako
Agudo, Alfonso Vidal eta
Nieves Aranburu.

Administrazioa: Arantxa
Usaralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino. **Erredakzio**
Kontseilua: Olatz Altuna,
Garikoitz Udabe, Jose Jabier
Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu Aranberri
, Ainhoa Azpiroz.


Maketazioa: Susana
Martin. **Argazkia:** Joxe Antonio
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-
so. **Banaketa:** Merxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.
Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola,
Tirada: 2.000 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak
ez du bere gain hartzen aldiz-
karian adierazitako esamen
eta iritzien erantzunkizunik.



Jarrai dezagun borrokan

Ramon Uribe

**Preso politikoa Segoviako espetxean, api-
rilaren 5etik aurrera gose greban**

Aupa usurbildarrok!

Ez dakit nola hasi lerro hauek euskal presoek kolektiboan daramagun borroka hitz egiteko. Gure oinarritzko eskubideen zapalketak bultzatuaren mugagabeko gose greba hastera. Ez da "kapritxo" bat, sufritzen dugun egoera jasangaitzari aurre egiteko modu bakarra da, gelditzen zaigun azken errekurtsua.

Borroka honekin euskal presoek kolektiboak lortu nahi duena zera da: gurekin eta gure familiarekin egiten diren bidegabekeriekin amaitzea. Euskal preso guztiok Euskal Herriko espetxeetan batzea eskatzen dugu, gaixo dauden lagunei 92. artikulua aplikatzea, kondenaren 3/4ak bete dituztenen askatasuna, eta presoek eskubide guztiak errespetatzea, beraien legeek esaten duten bezala. Izan ere, lege dagozkigun eskubideak badira ere, ukatu egiten baizaizkigu.

Orain dela 10 urte hasi zen sakabanaketa, presoek makurtu arazteko daramaten bide errepresiboaren azken pausoa. PSOEk diseinatutako

politika, baina PNV, EA eta IUren onespenez aurrera eramaten ari dena. Politika errepresibo honen bidez presoak urrutira eraman eta isolatu egiten gaituzte. Gure alderik ahulenean eragiten digute, eta gogoz gainera, gure independentzia guztia mindu eta ahultzeko. Baina ez dute lortuko, kolektiboa indartsu eta gero eta batuago baita gure eskubideen aldeko borroka honetan.

Bukatzeke, zera esatea falta zait: helburu hauek kartzela barruan gaudenon gose grebaren esfortzuarekin lortuko direla. Baina ez horrekin bakarrik. Kalean daramazuen borroka da garrantzitsua: Artzai Oneko gose greba, Iruñekoa, Euskal Herria Askatuko kontzentrazioak eta Senideak-en beste deialdi guztiak.

Azkenik, lerro hauek preso guztien familiartekoei agur bat bidaltzeko aprobetxatu nahi ditut, eta baita kalean borrokan ari zareten abertzale guztiok ere.

Animo eta gogor!

**PORTADA: Martxoaren
19an egin zen merkaturia.**

Telesforo Ardoak



Zure
mahairako
egokienak

Kale Nagusia, 25
Telf. 36 12 20



Aritzeta 2 - 2 Usurbil

Buru-azalar enzainketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85

E.A.J.-P.N.V.k Herri Batasunari

Zuen idazkien bidez garbi ikusi dugu zenbaterainoko mina ematen dizuen gure presentziak Udaletxean.

Otsaila osoa eta gehiago, Udaletxea geldirik egon dela esan dugulako txispak botatzen hasi zarete, edonork daki Udaletxean batzorde informatiboak, gobernu batzordeak eta plenoak geldirik badaude, ez dagoela Udal funtzio-namendurik. Eta hau egi borobila da.

Hurrengo puntutan egiten dituzuten salaketak, ELAko idazkariari dagokiona, Eguzkitza baserriko bidea eta ateko xeletak, parregurea sortzen digute.

Zer froga dituzute hau guztia egiaztatzeko? Bidezkoa iruditzen zaizue gezurrarekin gure zinegotziek izena zikindu nahi izatea?

Garbi ikusten dugu oraindik ez zaretela jabetu E.A.J.-P.N.V. oposizioan daukazuela eta

bere egitekoa dela zuek oker egin eta hartzen dituzuen erabakiak guk salatzea.

Usurbilgo herriak jakin dezala E.A.J.-P.N.V. oso harro sentitzen dela bere zinegotziak Udaletxean duten jokabideaz.


Bide honetatik jarraitzeko asmotan bazarete hurrengo pausoa auzitegian kereila aurkeztea izango da.

Usurbilgo E.A.J.-P.N.V.

xirrikitutik



Claudia Schiffer eta Valeria Mazza modeloak izan zitezkeen Cibelesetako pasarelan, baina Amagoia Mugika eta Silvia Faz usurbildarrak dira, martxoaren 20an Lasarteko kultur etxean egindako moda desfilean. Oraingo honetan mundu osoan ezagunak egingo zaizkigu bi modelo usurbildar hauek.



PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

MAHUKA



GAZTE DENDA

Orain, udaberriko puntako moda

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

L6 T

HARATEGIA


**Harategia, 34
Usurbil**

☎ 36 57 42



CARMEN PEREZ GONZALEZ

57 urteko emakume hau gazte zelarik etorri zen Euskal Herri aldera; lehenik Lasartera eta gero Santuenera. Guztiok ezagutu dugu bere kioskoan sartuta, goxoki eta jostailuen artean. Eta horretan dabil orain ere, Santuenean duen dendan.



Zer dela eta etorri zinen hona?

Ni Salamancako Figueros de la Bastida herri txikian jaio nintzen. Herri xumea denez, abeltzaintza eta nekazaritzatik soilik bizi ahal zen. Baina egoera larritu egin zen eta ez genuen beste aukerarik izan. 23 urte nituelarik etorri ginen Lasarte aldera senarra eta biok lan bila.

Eta nolatan bukatu duzu Santuenean?

Lasarten gela alokatua genuen, baina oso txikia zen guretzat. Usurbilen etxeak merkeago zeudela entzun genuen eta ez genuen dudarik izan, hona etorri ginen.

Desberdintasun handia al dago zure jaioterria eta Usurbil artean?

Asko gustatzen zait hemen bizitzea, benetan toki ederra da hau. Baina pentsatzen dut denori bezala, zure lurra beti izango dela zure kuttuna. Han etxe guztietako ateak irekiak daude beti; nahi duzunean bertara sartzeko. Jendea askoz ere alaiagoa dela uste dut, beti kantari eta dantzari. Baina horrelako konparazioak ez dira oso objetiboak eta...

Beti ezagutu izan zaitugu kioskoaren barnean.

Noski, 17 urte pasa ditut eta bertan! Piskanaka bada ere, zenbat haur pasako ote ziren bertatik! Hiru seme alaba aurrera ateratzeko eta senarraren jonalari laguntzeko hasi nintzen bertan lanean.

Eta zer suposatu du zuretzat?

Gauza asko. Poza eta tristura asko eman dizkit. Azkenetatik gehiago. Batez ere kioskoa bota egin zidatenean.

Baina orain denda duzu.

Bai, baina kioskoa toki hobeagoan zegoen. Hala ere, arazo handiena ekonomikoa izan da.

Zer dela eta?

Lehenik kioskoa jartzeko baimena eta obrak ordaindu, gero dendarenak... Eta okerrera da Santuenean ezin duzula asko saldu. Hala ere, hemen egotea da nire eginbehar eta denborapasa ere.

Jendearekin tratua behintzat ez zaizu faltako.

Ez, eta eskerrak! Horixe da nire denborapasarik onena. Orduak emango nituzke baterekin zein bestearekin hitz egiten. Bai eta nirekin hitz egin nahi ez dutenekin ere. Ez naiz mendekuzalea.

Beste denborapasarik ba al duzu?

Nahiko gutxi, denbora ere ez baitut gehiegi. Telebista ikusten dut, baina hau egiteko ere ez dut denbora gehiegi. Bestetik, asko gustatzen zaizkit etxeko lanak egitea. Baina bestetik, sukaldari txarra naiz, horrek ez du bueltarik.

Beharbada ez da zerbait galdetzekoa, baina nola galdu zenuen eskua?

Nire etxean izan zen, 18 urte nituelarik. Errekan arropa garbitzetik nentorren eta bazkaria prestatzen hasi nintzen. Ez genuen sukaldarik, eta suarekin prestatzen genituen otorduak. Eltzearen aurrean nengoela konortea galdu eta bertara erori nintzen, sutara. Gorputzaren gehiena erre nuen.

Gogorra izango zen benetan.

Dударик ez. Imagina ezazu 18 urteko neskatxa bat horrelako egoeran. Hiru hilabete pasa nituen ospitalean hil ala biziko egoeran. Ezin da azaldu sentitzen nuen min fisikoa. Ez eta bihotzekoa ere.

Ze falta zaizu ikusteko?

Nire bi alaba eta semeak lanean ikustekoa. Horixe izango litzateke nire bizitzako albiste onena, dudarik gabe.

USURBIL
O P T I K A



Irazu kalea, 9-11, 20170 Usurbil
Tlf. eta Faxa: 37 02 69(Gipuzkoa)

TABERNA-JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 37 03 44

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Aritxeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

AGINAGA



**Iratxe
Begiristain**

SOS deia autobus zerbitzuen inguruan


Aste Santuko oporrak amaitu eta balantzetxo bat egiterakoan hegazkin, koxe, autobus eta trenen joan-etorriak etengabeak izan direla esan dute behin eta berriz komunikabideek. **Aginaga** aldera kanpotik kotxerik gabe etorri direnek behintzat **ez** zuten **Donostia** edo **Zarautz** aldera joateko **autobus zerbitzu gehiegirik** aurkituko. **Eusko Trenbideak** aspaldi hasi zen zerbitzuak kentzen. Hasieran 14 kendu zituzten, ondoren, udala eta herri mugimendua- ren bidez, zenbait zerbitzu berreskuratzea lortu zen.

Hala ere, **Aginagatarrok jasan dugu kalterik haundiena**. Hiru zerbitzu **Usurbildik** ateratzen dira **Donostiara** eta itzultzeko beste hiru **Usurbilen** gelditzen dira. **Nola joan behar dugu etxera Txokoalde edo Aginagako jendeak?** Beste ordubete egon behar dugu bigarren autobus baten zain?

Eusko Trenbideak tren zerbitzua indartu nahiean dabilela diote. **Usurbilen** trenaren erabilpena asko haunditu dela entzuten dugu etengabe. **Aginagarrok ez dugu tren geltokirik**, trena hartu nahi badugu Usurbila joan behar. Baina nola joan **Usurbila** autobus zerbitzuak gutxitzen badizkigute?

Garraibideak alde batera utzi eta frontoi kontuak modan daudenez nik ere **Aginagako fontoiaz hitz egin behar dut**. Udaleko langileak hor ari dira azken hilabete hauetan gure **frontoi zaharra konpontzen**. Laister batean, **Aginagako** gazteek izango dute izerdia non atera.

ATXEGALDE



**Amagoia
Mujika**

Eskaileren kontuan okerrak zuzenduz

Ezer baino lehen **zuzenketa bat** egin behar dut. Nire azken hitzaldian **Atxegaldeko eskailera** batzuen **egoera tamalgarriaz kexatu** nintzen. Nire esanetan harategi ondo-ko eskaileran erori zen auzoko emakume bat, baina hori hankasartzea.

Istripua ez zen eskailera horietan gertatu, **errepide generalera jeisteko daudene-**



tan baizik. Okerrak zuzentzea ondo etortzen da beti, eta oraingoan ere bai. Izan ere auzotarrek behin eta berriz esaten didate eskailera horien egoera etengabe salatu behar dela.

Aurrekoan **emakume bat elbarri gelditzeko zorian** egon zen, eta autobusa hartu behar dutenek nahiz eremu industria- lera joaten direnek maiz erabiltzen dute eskailera hau. Horien esanetan zerbait egin beharra dago. Harrixintzar ugari dago eta euria egiten duenean **oso arriskutsua** bihurtzen da bertatik jeistea. Konponbidea eskailera erdian barandila jartzea da gure auzokideen ustez.

Barkatuta dagoelakoan, beste gai bati helduko diot. Konturatuko zinetenez

Atxegaldeko bide izkinak kolorez josi dizkigute, **errepideko marra horiak berritu** baitizkigute. Bai **Atxegalden** baita **Usurbilgo beste auzoetan** ere. Hauek ere kontatu behar, ez gara beti kexaka ibiliko ezta?

Bestalde, **Atxegaldeko zenbait etxera gasa iritsi da** jadanik, bazen garaia! Neguko hotzak pasa diren arren, ez dago gaizki berogailuak prest edukitzea, hemendik aurrera eguraldiak zer ekarriko digun ez dakigu eta.

KALEZAR




**Begoña
Zubiria**

Eskolaurre zaharra bota dute

Joan den martxoaren 20an hasita **Udarregi ikastolak** hainbat urtetan **eskolaurreko haurrak eduki dituen eraikuntza bota** egin dute udaletxeko langileek. Etxe prefabrikatu hauek botatzeko asmoa aspaldikoa zen. Aldamenean etxe berriak egin dituzte eta eraikuntza hauen egoera tamalgarria zen, ingurua itsusituaz. Oraingoan **udalak ez du hemen ezer egingo**, dagoen bezala utziko du.



URDAIAGA

Leire
AtxegaOporrak aitzaki jende
ugari Urdaiagan

Aze eguraldia azken hila-
beteetakoa. Eguzki egu-
nak ugari eta euria berriz,
gutxi. Baserritarrak ere kexu
dira jadanik. **Euri faltan bara-
tze-fako lurak lehortzen ari
dira eta euria gustora hartuko
lukete.** Bien bitartean jendea
gustora. Aste Santuko oporrak
izanik jende ugari ibili da
Urdaiaga aldean.

Batzuk Leizekaldeko parkean
bazkaltzen, beste batzuk pa-
seatzen; kanpotarrak, usurbil-
darrak... denetik ibili da egun
hauetan. **Gazte koadrilak ere
ikusitako Andatzarako
bidean.** Motxila haundiak biz-
karrean zituztela, goiko txabo-
lan oporrak pasatzeko asmoa
izango zuten. **Espero dugu
txabola garbi utziko zutela,**
izan ere azken aldian Anda-
tzako txabolaren egoera gero
eta txarragoa da. Andatza
denona da, txabola ere bai,
horregatik guztion artean zain-
du behar dugu.

Oporrak hartu ez dituenak Oa
goiko **Joseba Zubeldia** da.
Txirrindulariak buru-belarri
dabilta laisterketetan eta
Urdaiagako gazte hau aurre-
ko puntan dabil jubencil mail-
lan. **Martxoaren 30ean
Uzarragako igoeran hamarga-
rren postua eskuratu zuen** eta
egun berean jakin zuen
**Gipuzkoako selektorekin
Frantziako nazioarteko laister-
ketara joateko hautatua izan
zela.** Hori bai, ordezeko bezala.

TXOKOALDE

Iñaki
LabakaTxokoaldeko frontoia noiz
berrituko zain

Usurbilgo frontoiari estalki
berria jarri nahian dabil-
tzen bitartean, **Txokoalden**
auzotarrek "guri noiz konpondu
behar digute" galdetzen dute.
Jakin badakigu udalak aurtengo
aurrekontuan 10.500.000
pezeta jarri dituela lan hauek
egiteko, baina oraindik ez da
konkurto publikorik egin lan
hori zein enpresari eman behar
zaion jakiteko. Bitartean zain
egon behar.



Orain dela lau hilabete **fron-
toiaren inguruko txokoak garbi-
tu** eta konpondu zituzten uda-
leko langileek eta auzotarrak
itxaropentsu, lanak berehala
hasiko zirenen ustean. Baina
**usteak erdia ustel. Auzoko gaz-
teak,** frontoia itxia dagoenez
Berriola kooperatiba aurrean
ibiltzen dira **futboleant**. A ze ate
soinuak ateratzen dituzten zen-
bait momentutan.

Frontoia txikia izan arren,
pelotan jokatzeko, bai eskuz
eta bai palez, oso estimatua
izan da; ez guretzat bakarrik
baita **Santuenea** eta **Agina-
gako** bizilagunentzat ere.
Denok izerdi ugari bota dugu
bertan. Beraz, ea lehenbaile-
hen berritzen diguten gure fron-
toi zaharra.

Bestalde, frontoi kontuekin

jarraituz, geldirik ez daudenak,
nahiz eta Aste Santuko jaiak
izan, **Bustinzulo keramika talde-
ko kideak** dira. **Usurbilgo** fron-
toiaren ezkerreko paretaren
kanpokaldea apaindu behar
dutela eta, **Xanti Illarramendik**
egokitutako Txokoaldeko taile-
rrean hor ari dira jo eta ke pie-
zak egiten. Pieza asko egin
behar dituztenez denbora
batean hemen, **Txokoalden,**
ikusiko ditugu pieza horiek egi-
ten. Lan ederra hartu dute ala-
jaina.

KALEBERRI

Ines
KaminoKale Nagusitik Etxe-
Zurira espaloia nahi

Kirok kontuekin ekingo diot
nire tarteari, **Kaleberriko**
Harkaitz Errazkin txirrindulariak
laugarren postua eskuratu
zuen jubenetako proba bate-
an. Espero dugu hemendik
aurrera ere emaitza onak lor-
tzen jarraitzea.

Kaleberriko kaleetan marrak
margotzen ibili dira azken aste-
an. Kale Nagusitik Etxe-Zurira
doan marrak pintatzen ari zire-
la jende askoren eskaera etorri
zait burura. Bide horretan espa-
loia jartzea eskatzen ari da
jende asko. Bizkarreko etxeeta-
ra joan nahi duenak hortik
pasa behar du, eta espaloirik
ez dagoenez arriskutsu bihur-
tzen da ibilbide hori egitea.



H erorrek esan



Gero Tena

Kaleberri

Beti etortzen naiz merkatura. Produktu konkretu batzuk erostea gustatzen zait, adibidez: patatak, bakailaoa, baratxuria,... Gai hauek merkeago aurkitzen dituzu hemen.



Iñaki Illarramendi

Txokoalde

Emaztea zenbait produktu erostera joaten da, prezioz hobeto eta aukera ere haundiagoa dagoelako. Jende gutxiago ibiltzearen arrazoia pentsatzen dut erosketak supermerkatuetan egiten direlako dela.



Idoia Iturriz

Santuenea

Nik ez dut azokan erosten, ohitura falta daukat. Bestetik, uste dut merkatarren beherakada gaur egun jendeak aste osoko erosketak supermerkatu haundietan egiten dituelako ematen ari dela.



Andoni Atxega

Kaleberri

Ni ez naiz joaten, baina ama eta arreba bai. Produktu batzuk merkeago daudelako joaten dira batez ere: gazta, fruta,... Prezio-kalitatea erlazioa hobea da. Bestetik, azken urteotan jasan duen beherakada konpetentziagatik dela uste dut.



Itziar Arrizabalaga

Atxegalde

Nik ez ditut merkatuan egiten arosketak, ordu horretan lanera joaten naizelako. Bestetik, uste dut Lasarteko azokak konpetentzia egiten diola hemengoari, egun berean egiten direlako biak eta han aukera haundiagoa dagoelako.



Jose Maria Agirre

Eguzkitza

Ez naiz askotan etortzen, bi astetik behin edo. Batez ere bakailaoa, arrautza eta gazta erosten ditut. Aukera gehiago egoten da produktu hauetan eta prezioa ere hobea da. Bestetik, jende aldetik asko jeitsi da, uste dut jendea Lasarteko azokara joaten delako gertatzen dela hau.



Mari Karmen Otegi

Atxegalde

Merkatura astero etortzen naiz. Batez ere gazta eta arrautzak erosten ditut hemendik. Ohitura hartzen duzu gazta mota bat jateko, eta gero astero astero etortzen zara produktu konkretu hori erosteko. Hala ere, aspaldiko partez jende kopurua jeitsi egin da asko.



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13



**URTINEA
LORATEGIA**

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 2255

Euskaldunontzat EZ dago justiziarik



USURBILGO
EUSKAL
HERRIAN
EUSKARAZ

Ez dago ez, inondik ere, euskaldunontzat justiziarik. Izan ere, gure Herriaren alde bietara dauden Estatuak araurik gabeko guda bati ekin zioten, aspaldi ere, euskal usaina zuen guztiari. Gaur egun euskal izaera deuseztu nahi dutenek asmatutako legeekin epaitu nahi dituzte.

Zoritxarrez, gaur egun egoera hau ez da aldatu, ez mamian bederen. Espainiar zein frantziar "demokrazien" ardatz diren konstituzioek gaztelera edo frantsesa jakitera behartzen gaituzte euskaldunoi, euskara jakitea aukera pertsonala den bitartean. Herri hau menperatu nahi dutenek, **euren hizkuntza inposatzen digute, geurea zapalduz.**

Epaitegietan epaile zein fiskal euskaldun faltaren ondorioz **itzultzaileen bitartez defendatzera behartzen gaituzte**, Euskal Herrian arrotzak euskaldunak bagina bezala. Justizia pertsona zein giza taldeen eskubideak berresten dituen balorea da, legeak, berriz, hauek sustatu eta gau-

zatzeko neurri eta bitartekoak. Halaber, legeak tokian tokiko ezaugarri soziokulturaletan oinarriturik egon behar dute ezinbeste. Bertako ikusmoldean, izaeran, lurraldean eta hizkuntzan errotuak egon behar dute.

Euskaldunontzat justiziarik ez dagoenez

1.- Justizi Administrazioan epaile, fiskal eta langile euskaldunak ez dauden bitartean ez dira gai izango euskaldunok epaitzeko. **Herri honetan gaztelera baita hizkuntz arrotza;** hau da, indarraren bitartez inposatutako ordezkatzeko prozesu baten ondorioz ezarria.

2.- **Euskaldunok euskaraz defendatzeko aukerarik ez dugun bitartean ezin dugu epaituak izan.** Ez eta itzultzaileirik onartu ere. Izan ere, itzultzailea tokian-tokiko hizkuntza ezagutzen ez duenari eskaini behar zaio; beraz, euskara ezagutzen ez dutenek eska dezatela.



Martxoaren 15ean Bergaran egin zen manifestaldira joan ziren usurbildarrak ere.

3.- **Berezko euskal administrazio bat** ez dagoen bitartean euskaldunontzat ez da justiziarik izango. Are gehiago, urteetan Herri hau menperatzen saiatu diren estatuen legeak ezin ditugu onartu, lege horiek euskal kulturaren kaltetan asmatuak baitira.

Horrela, esanak esan, euskaldunok garena izaten jarraitu nahi badugu tinko segi behar dugu. Espainiar edota frantziar legerien aurrean **jarrera desobediente eta irmo bat agertu behar dugu.** Ez gaude prest biharko egunkarietan euskararen eskela ikusteko. Horrek erakusten du euskaldunak bagarela nor, euskarak baduela bere balioa, euskara bizi dela eta biziko dela.

Euskal Herriak borrokalariak izan behar ditu. Euskara, euskal kultura, lurraldetasuna eta demokrazioaren aldeko borrokalariak. Eta borroka horretan armarik garrantzitsuena **EUSKARA** da.

Asko dira ditugun premiak, asko eman beharreko aurrerapausoak, baina **desobedientzia** praktikan jartzera iritsi gara gaur. Ez dugu amaitu eta horrela jarraituko dugu dago-kiguna lortu arte.

Euskal Herriak izan behar du euskalduna eta libre!

Usurbilgo Euskal Herrian Euskaraz



kafe berezia

ETXE-ALDIA, 1
TLF 36 27 70

20170
USURBIL



Kima

MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

Asteazkenetako merkatua galtzorian?

Garai batean azoka herriko denda izateaz gain, kaxkoko nahiz herriko baserrietako herritarrak bildu eta elkarren berri jakiteko gunea ere bazen. Egun ordea, badirudi biltoki funtzioa galdu egin duela, eta erosteko gunea ere piskanaka piskanaka beherantz doala.

Usurbilgo asteazkenetako azokak lehen pausoak 1970-71 urte inguruan eman zituen. Garai hartan, Udaletxe aurreko plazara furgoneta pare bat etortzen hasi ziren eta bertan egin zituzten lehen salmenta txikiak. Denbora pasa ahala, herriko jendea azoka txiki honetan erosten ohitzen hasi zen eta horrek saltzaile gehiago ere erakarri zituen. 1981. urtean merkatua dema-plazara pasa zen, eta hemen eza-gutu zituen bere garairik oparoenak. Bataz beste, era eta produktu guztietako 24 postu etortzen ziren, herria giro eta kolorez betetzen zutelarik.



Gero eta jende gutxiago etortzen denez azokara, saltzaileen postuak ere urritzen doaz urtetik urtera.

1989. urtean azoka gaur egun dagoen tokira aldatuko dute, Udarregi ikastola zaharra zegoen tokira.

Azoka gainbehera

Azken leku aldatuta honek protestak ekarri zituen saltzaileen arte, beraien ustez galtzen atera baitziren. *"Dema-plaza herriaren bihotza da, eta gainera benetan polita geratzen zen postu guztiekin. Horrek jende asko erakartzen zuen bertara. Orain gauden tokira etortzean, jende kopuruaren jeitsiera asko nabaritu genuen"*, azaldu digu **Jose Mari Ezkerro** saltzaileak.

Hala ere, aldaketak aldatuta, azken urte hauetan merkatuaren joera beherantzkoa da, gero eta jende gutxiagok erosten du bertan, eta ondorioz, saltzaile gutxiago etortzen dira. Egoera hau ordea ez da soilik Usurbilen ematen, Euskal Herri eta estatu mailan ematen ari den zerbaite da. Baina zein izan

daiteke beherakada nabarmen honen arrazoia? Saltzaile batzuentzat aspaldian murgilduta gauden krisi ekonomikoak du eragin haundiena. Beste batzuentzat aldiz, erosketa ohiturak aldatzeak ekarri du ondorioa hau.

Pello Jauregi, "Anaiak fruitak"eko saltzailea eta Gipuzkoako Saltzaile Anbulanteen Elkarteko lehendakariaren ustez, *"duela urte batzuk arte familiak askoz ere haundiagoak ziren, eta jendea boltsa*

Azokak beherakada nabarmena nabaritu zuen dema plazatik gaur egun dagoen tokira pasa zutenean

betearekin itzultzen zen etxera. Gaur egun ordea ez da horrelakorik gertatzen. Bestetik, bikote gazteek ez dute azokan erosteko ohitura ikasi. Nahiago dute supermerkatu haundiara joan". Gainera, eragina duen beste fenomeno bat ere kontuan hartu behar dugu: *"usurbilgo emakume asko Donostira joaten dira lan egitera eta bertan egiten dituzte erosketak"*.

Salmenta gutxitzeak, berez kompetentzia haundiko arlo honetan, egoera gehiago larritu du. *"Duela hamar bat urte bost pezetako salmenta bat egiten zenuenean bost pezeta horiekin geratzen zinen, baina gaur egun, produktua erosi beharrak eta zergen ordainketak bost pezeta horietatik lau t'erdi ordainketak egiteko utzi behar dituzu. Eta salmenta*



Saltzaileen gehiengoak egoera txarra dela esaten badute ere, badira gero eta salmenta gehiago egiten dituzten postuak ere. Hala ere, badirudi Euskal Herriko merkatu guztien joera beheranzkoa dela.

beherantz doa. Lehen Usurbilen 50 zaku patata saltzen nituen, eta orain berriz 10," azaltzen du saltzaile batek.

Herri batetik bestera, postuaren m² prezioa aldatu egiten da. Usurbilen 185 pezeta balio ditu, inguruko merkatuekin konparatu ezker, tartean dagoena. m² garestiena berriz, Lasarten ordaintzen da, ia usurbilgoaren bikoitza. Hiru hilabeteetik behin ordaindu beharra dute.

Merkatuko ia postu guztiak egoera nahiko beltz ikusten badute ere, badaude bakarren batzuk gustora daudenak ere. Hauxe da behintzat "Charcu-feria Idoia"ko **Ana Tovarrek** dioena: "*Nabaritzen da merkatu guztietan beherakada dagoela, baina nik gero eta gehiago saltzen dut. Beharbada produktuak hemengo dendetan ez daudelako izan daiteke: salamankako txorizoa, oliba mota ezberdinak...*".

Antzeko zerbait dio **Maria Angeles Intxaustik**, merkatuko saltzaile eta Nafarroako Saltzaile Anbulanteen lehendakariak: "*arrautzak, bakailaoa, gazta eta antzekoak saltzen ditut eta Usurbilen salmenta oso ondo doa*". Bere postuaren arrakasta azaltzeko, kalitate-

prezio erlazio onean oinarritzen du, baina baita ere beste faktore batzuetan: "*Saltzeaz gain beste zerbait ere eskaini behar duzu eroslea berriro zuregana itzultzeko. Produktua gehiago mantentzeko kontseiluak edo eta errezetak ematea gustatzen zait, horrela konfidantza lortzen duzulako, eta hori ezinbestekoa da. Usurbilgo erosleari gainera, produktu ona eramatea gustatzen zaio, eta hori*

Gipuzkoako Saltzaile Anbulanteen lehendakariak esaten duenez, azokak aurrera aterako dira bertatik-bertako tratua ematen dutelako

zaindu egin behar duzu".

Baina benetako protagonistak (hau da, erosleek) zer pentsatzen dute gai honetaz? Orokorrean, galdetutako guztiek astero ez bada ere bi asteetik behin merkatura inguratzen direla aitortzen dute, bai eta azken urteotan merkatua "asko jeitsi dela" aipatu ere. Bertan erostearen arrazoetatik galdeztzean ez dago dudarik: produktu batzuk (fruta, gazta, patata, bakailaoa eta arrautzak batez ere) prezioz hobeto daudelako.

Azokaren beherakada berriz, hainbat gauzatatik izan daitekeela uste dute: orokorrean prezioak goraka doazelako, herriko dendetatik edo eta Lasarteko merkatura (asteazkenetan hau ere) usurbildar asko joaten delako.

Merkatuaren etorkizuna nahiko beltza dela ikusita, Udalak zerbait egiteko asmorik ba al du? Azoka udaleko Zerbitzu Batzordearen eskumenean dago. Halere praktikan Udaltzaingoak gestionatzen du azoka: zein postu egongo diren azokan, osakidetzak egiten dituen inspezioen kontu ere eman... Hala ere, **Joxe Antonio Altuna** alkateak adierazi digunez, "*mekatuaren gaia momentu honetan "in passe" batean aurkitzen da, hau da, oraingo ez daukagu berarekin ezer egiteko asmorik. Badugu epe ertainera proiektu bat egiteko asmoa, baina oraindik asmo eta ideia mailan garatu dugu soilik. Oraingo ez dago ezer erabakita*".

Etorkizunari begira

Egoera azalduta, badirudi asteazkenetako azoka bueltarik gbeko bide batetatik doala. Baina **Pello Jauregik** ez du horrela ikusten: "*Europako merkatuak urte batzuetako krisia jasan ondoren berpizten ari dira, eta nire ustez hemen ere horrelako zerbait gertatuko da. Badirudi etorkizuna supermerkatu haundiena dela soilik, baina hori ez da horrela izango. Zergatik? Supermerkatu hauek ezin dutelako bertatik bertako tartu hori eman eta guk aldiz, bai. Beraz, gure lehengo egin beharra Usurbil bezalako merkatuetara postu finkoak eta desberdinak erakartzea da, eta horretan ari gara. Aukera eta tratuarekin, azokaren berloratzea suposatuko duelako*".

Idoia Torregarai

Lur erosketa ugari onartu ziren azken udal batzan

Joan den martxoaren 21ean ohizko udal batzarrara egin zen Usurbilgo udalean. Bertan ziren H.Bko zazpi zinegotziak, PNVko biak, EAko biak eta Izaskun Maiz independentea. PSOEko udal ordezkaria ez zen azaldu.

Motzaneako baratzen etxeak egitekoak direla aspalditik dakigu. Kartelak ere jarri zituzten pisua erosi nahi zuen ororentzat. Baina noiz hasiko dira etxeak egiten? Oraingoz norma eta lizentziaren artean dagoen tramitazioa, xehetasun estudioa, amaitu dute eta udal batzak ontzat ematea erabaki du. Honen ondorioz, eta lizentzia jadanik eskatua dutenez, apirilaren 8an egingo den gobernu batzordean lizentzia eman edo ez erabakiko da. Behin lizentzia ematen zaienean edozein momentutan hasi daitezke lanean Construcciones Irazustabarrenako langileak.

Hilerri berria eraikitze-ko lurzattia erosiko da

Udal batza osatzen zuten ordezkari guztien onespenerekin hilerri berria eraikitze-ko lurzattia erostea adostu zen. 13.000 m² erosiko dira guztira Olloki inguruan, 5.000 hilerria egiteko eta gainontzeko 8.000 metro karratuak zelai moduan jartzeko. Hasiera batean hilerria egiteko lurra erosi nahi ziren soilik baina lurjabeak lur osoa saldu nahi zenez azke-

Hilerria txikia gelditzen ari da. Horregatik udalak Olloki aldean hilerri berria egiteko lurzattia erostea erabaki du



nean 13.000 m²-ak erosiko dira. Lursail hau erostea zazpi milioi pezeta kostako zaio udalari. Honetarako 1996ko aurrekontuan adostutako hiru milioi eta 1997ko aurrekontuan ezarri diren lau milioi erabiliko dira.

Kiroldegi eta anbulategi ondoko lurzattia erostear

LURKOA enpresari kiroldegi eta anbulategi ondoan dagoen lurzattia erostea ere erabaki zuen udalak. Lurzatti horrek 3.996 metro karratuko azalera du eta 6.800.000 pezeta ordainduko zaizkio LURKOA enpresari, metro karratuko 1.700 pezeta. Honenbestez, 1997ko aurrekontuetan adostutako 6.800.000 pezetak erabiliko dira ordainketari aurre egiteko. Dagozkion eskriturak eta gainontzeko gestioak Joxe Antonio Altuna alkateak burutuko ditu maiatzaren amaieran.

Txokoalden lur-erosketak

Txokoaldeko frontoia eraberritzera doala eta inguruko lurra hartu eta txukun edukitzea interesgarri litzatekeela ikusita udal batzak 1000 metro karratuko azalera duen lurzattia erostea erabaki du Ollokiko lurretan zinegotzien erabateko adostasunarekin.

Txokoalden bertan trenbide-pasagunearen ondoan ere 180 metro karratuko lurzatti bat erosiko da. Udalaren asmoa hesirik gabe dagoen pasabidea (Kaetxe baserriaren parean) itxi eta hesiak dituen pasabidetik erriberara joateko beste bide bat egitea da.

Iberdueroren transformagailuarentzat lurra Elizari, Kalezarreko kapila inguruan, Hospital izeneko etxeari dagozkion 62.91 metro karratuko lurzattia erosiko zaio 49.062 pezetaren truke

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL



Elkaitze

Bideo eta Argazki

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun

RAMON URIBE GOSE GREBAN

Ramon Uribe preso usurbildarrak **apirilaren 5ean gose greba hasiko du**. Euskal presoak txandaka-txandaka gose greba burutzen ari dira berain eskubideak errespetatu daitezkeen eskatzeko. Besteak beste, gaixotasun sendaezina duten presoek 92. artikulua aplikatzea eskatzen dute, kondanaren 3/4ak beteak dituztenei askatasuna ematea eta kartzelako eskubide guztiak errespetatzea. Apirilaren 5ean hasi eta 19an bukatuko den txandan beraz, Segoviako espetxean egingo du baraualdia Ramonek.


ASTE SANTUAK HERRIAN

Nahiz eta **Aste Santuko oporretan** herriko kaleak nabarmen hustu, **kanpotarrak** ere hurbildu dira **nekazal etxeetara**. Bai **Ibarrola-Txiki** eta bai **Zabaleko** nekazalturismoak **beteta** egon dira egunotan. Gehiengoa **Katalunia** aldetik etorri dela adierazi digute, baina baita **Madril** eta **Bilbotik** ere. Eguraldi onaz gozatzeko aukera izan dute, behintzat.



Joan den martxoaren 27an, **Pazko igandean, bataioak** izan ziren **Salbatore parrokian**. Hiru hila-betero egiten dira orain bataioak, nahiz eta lehen hila-betero egiten ziren.

Guztira **10 haur** bataiatu ziren, **sei euskarazko mezan** eta gainontzeko **lauak erdarazkoan**. Ondoren, haurrek ederki gozatu zuten gozokiak eta txanponak hartzen.



Martxoaren 6an A-8 autopistako **Aritzetako atse-
den lekuan** lapur bat sartu zen kafetegian. Bertan kafea hartzen ari zen ertzain bat zegoela konturatzean, tiro egin zion. iztarrean. Bitartean **lapurrak 200.000 pezeta ohosteaz** gain, ertzainaren pistola ere eraman zuen. Guztia gertatu bitartean, zauritutako ertzainaren lankidea autoan zegoen eta ez zen ezertaz konturatu abisua eman zioten arte.

Ondoren ertzaina gehiago ere mobilizatu ziren eta goizaldeko orduak arte **Kalezar inguruan kotxe guztiak gelditu araziz kontrolean**.

USURBILGO JUDOKAK LOURDESEN

Pasa den martxoaren 23an Nazioarteko Judo Txapelketa jokatu zen Lourdesen (Frantzia). Usurbilgo Judo taldeak bertan parte hartu zuen eta emaitza onak lortu zituen gainera. **Xabier Herasek** 42kg.ko mailan **zilarrezko domina** eskuratu zuen; **Alex Sanchezek brontzezkoa** 55 kg.ko mailan; eta **Mikel Martinek** ere **brontzezkoa** 65kg.koan.

UEMAREN DOKUMENTALA TALA HERRIAN

UEMA zer den azaltzen duen dokumentala grabatzen hasi behar dute laister. Usurbilen **apirilaren 9 eta 10**ean egongo dira eta zenbait elkarrizketa egingo dituzte. Hala nola, Usurbilgo arkitektoa, udaltzaina, basozaina eta pediatriari.

KALE GARBIGAILUA EROSTEKO LEHIAKETA IREKITA

Usurbilgo Udalak **kale garbigailua** erosteko **lehiaketa ireki** du makinan hauek saldu nahi duten denda eta enpresentzat. Makinak **13 milioi pezeta gehi B.E.Z.**ako aurrekontua du gehienez. Eskakerak aurkezteko **epea: 97-5-2**.



ZUMET A
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMET A MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Itsaskientsalada hozber oatrufa zaporez
 - Zapoatxangurr ozbeteriketatsaski saltsaz
 - Aspizunapatata pur e, onddo eta pikilopiperraz haragi saltsatan
 - Etxeko azken buruko endegustazioa
 - Ardo berezia eta kafea
- Bakoitzak 3.200 pta.



TABERNA

Pintxo bereziak
eta
giro aparta

Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17



Mikel Amenabar: "Gipuzkoan pilota piskanaka piskanaka galtzen doa, inertziaz funtzionatzen du guztiak"

Mikel Amenabar Zubietarra da. Azken hilabetetan behin baino gehiagotan ikusi dugu bere izena egunkarietan. Gipuzkoako Pilota Federazioko lehendakartzarako hauteskundeak aipatzen badira, hor nonbait topatuko dugu bere izena. Lehendakari hautatu zuten, baina lehenengo hauteskundeak atzera bota ondoren martxoaren 13an hauteskunde prozesua berriz martxan jarri zen. Oraingoz bera da hautagai bakarra. Bere esanetan beste hautagairik egoteko mugimendurik ez dago, eta hurrengo lau urtetan, hiru martxa honetan, bera izango da Gipuzkoako federazioko lehendakaria.



Zer egiten du zubietar batek Gipuzkoako Pilota Federazioko lehendakari izan nahian?

Federaziorako hauteskundeak zetoze eta zerbait egin beharra zegoen. Federazioan hutsune batzuk ikusten genituen ezagunak, lagunak... Donostia eta Tolosa inguruko jendea biltzen hasi ginen, ondoren Lenintz bailarakoekin harremanetan jartzeko. Lau, bost, dozenaldi izatetik 30 lagun izatera pasa ginen denbora gutxian.

Hauteskunde urtea 1996a izanik ez al dabil berandu Gipuzkoako Federazioa?

Sinestezina da hau. 1996 urte osoa zegoen hauteskundeak egiteko; egungo federazioak azaroan hasi zuen prozesua beste pilota federazio guztiak amaituta dituzten bitartean. 1997ko martxoa amaitu da, geldirik egon gara bi hilabete-

tan eta orain berriz hasi da hauteskunde prozesua.

Zein da egun, Gipuzkoako pilotaren egoera beste federazioekin alderatuta?

Gipuzkoa beti izan da pilota munduan aintzindari eta aurrerakoa, baina azken urte hauetan ikaragarri moteldu da. Beste herrialdeak aurrera joan dira; Bizkaia eta Araba asko aurreratu dira, eta Nafarroa zeresanik ez. Hauetan gauza politak egin dituzte, pilotariak teknifikazio prozesuak egiten dituzte: pilotariak beren elkarrekin entrenatzeaz gain, bereziki aukeratuak tekniko batzuekin entrenatzen dute. Gipuzkoan aldiz, dena geldirik dago. Elkarte asko federazioarekin hartu-eman onik ez du; zenbait elkarte daude bere gisan ari direnak, perretxikoak bezala bakarrik; erakundeekin, Ikaspilotarekin hartu-eman txar-

ra... Hori da Gipuzkoako pilotaren egoera momentu honetan.

Orain arte federazioan egon direnek zer egin dute horren aurrean?

Gauza askorik ez. Koordinazio eza handia da. Promozio falta izugarria da. Ikaspilotak bere aldetik egiten du zerbait, baina Ikaspilota ez da federazioa, eta honek promozio aldetik ez du ezer egiten. Bizkaian adibidez, 14 eta 18 urte bitarteko jendearentzat antolamendu berezia ezarri dute, eta Gipuzkoan ez dago horrelakorik. Piskanaka-piskanaka pilota galtzen joan da, ez da dinamikarik sortu, inertziaz funtzionatzen du guztiak. Iaz egindako txapelketak aurten egiten dira eta hortik aurrera batere ez.

Gipuzkoa pilota munduan beti izan da aintzindari eta aurrerakoa, baina azken urte hauetan ikaragarri moteldu da

Txapelketen antolamendu eza ere salatzen duzue.

Txapelketen antolaketa eza nabaria da Gipuzkoan. Bakoitza bere aldetik doa, loturarik gabe, nahikoa anarkikoa da guztia. Gure ustez hori ondo antolatzea oso garrantzitsua da. Txapelketa asko kanporaketa moduan dago jarrita, galtzen duena kalera, eta sistema honen bidez pilotari askok oso partidu gutxi joko-

tzen dituzte urtean zehar. Guk pentsatzen dugu federazioaren eginkizuna dela maila guztietako pilotariak beren txapelketak izatea. Ligaxkak behar-beharrezkoak dira txarrenak ere partiduak jokatu ditzan. Horretarako pilotariak sailkatzeari egokitzat hartzen dugu, bakoitzak bere mailakoekin jokatzeko. Hori eskuz egin daiteke, baina beste modalitateetan ezin da hori egin. Pelotari batek, beste edozein kirolarik bezala bederlatzi-hamaika hila bete egon behar du partiduak jokatzen, konpetizioan.

Txapelketak aipatu dituzenez, 10-14 bitarteko haurrek ezin dituzte txapelketak jokatu. Haurrek lehia nahi izaten dute, hau ez da eragozpena pilotarentzat?

Hor Diputazioak du ardura. Federazioak ezin du adin hori dutenentzat txapelketarik antolatu eta horregatik ez dago haurrentzat txapelketarik. Guk elkarlana eskainiko diogu Diputazioari, guk gure aldetik ere lagunduko genioke, haurrentzat txapelketak federazioak edo Diputazioak antolatzea berdin baitzaigu. Hala ere futboleant txapelketak antolatzen dira, eta haiek eskubide hori badute, guk zergatik ez? Hazia erein egin behar da. Hamar urte bete aurretik hasi behar dute pilotan, gero pilotari izan nahi badute aintzat. 15 urtekin ez dute jarraituko aurretik partidurik jokatu ez badute.

Pilotak jasotzen dituen dirulaguntzak nahikoak dira aurrera egiteko?


Pilota gure kulturaren zati bat da. Guk hala hartzen dugu eta hala onartzeko eskatuko diegu erakundeei. Kiroletan dirulaguntza banatu egiten da, baina pilotak beste planteamendu bat behar du. Zergatik? Pilota delako, gure kultura delako. Saskibaloian

jokatzeari utzi ezkerok Gipuzkoan ez litzateke ezer galduko. Pilota jokatzeari utzi ezkerok gure kulturaren zati bat galduko litzateke. Inglaterraan futbola da laguntza jasotzen duen kirol bakarra, beraiena delako; eta ez dute lotsarik. Hemen berriz, "Badmintongoek zer esan behar dute" esaten da, baina Badminton ez da gurea, pilota bai, eta hor borrokatu behar dugu.

Saskibaloian jokatzeari utzi ezkerok ez litzateke ezer galduko; pelotarekin kulturaren zati bat galduko litzateke

Giroa oso txartuta dabil Gipuzkoako Federaziorako hauteskundeak direla eta.

Azaroan hauteskundeak egin ziren, gu ginen hautagai bakarrak eta emaitza ikusi ondoren hauteskunde juntan zeudenak, prozesua oztopatu zuten. Federazioko lehendakaria eta junta 40 pilota elkartek, 10 pilotari eta 10 epailek osatutako batzar batek aukeratzen ditu. Prozesua eteteko arrazoi xeberre bat eman zuten: elkarte bakoitzeko botua nork eman zuen ez zegoela garbi, ahalmena zuenak edo beste batek. Hori dela eta bi hilabete oso osorik oztopatuta eduki dute prozesu guztia. Hala ere, bigarren hauteskunde hauek lehenengoak baino errazago



irabaziko ditugu.

Egun federazioan daudenak, Josetxo Etxeberria eta bere junta, Espainiako federazioarekin daude lotuta. Zuek berriz Euskadiko federazioarekin.

Guk inorekin loturirik ez dugu, baina ezin dugu ukatu, Espainiakoarekin ez bezala, Euskadiko federazioaren erizpideekin ados gaude. Josetxo Etxeberriak nahiago izan du Euskadikoarekin baino Espainiako federazioarekin egon. Guk pentsatzen dugu autonomia bat badago, estatutuak badaude eta transferentziak egon badira, horien artean kirolak, Espainiako federazioak Gipuzkoan zertan sarturik ez duela. Hemen Euskadiko federazioak sartu behar du.

1998an Munduko txapelketak Mexikon. Euskadik 10 domina lortu ditu. Entzun ahal izango dugu hori?

Oso denbora gutxi gelditzen da. Juridikoki, historikoki, posible da, baina azkenean tratu politikoa da. Beste nazioetako federazioek onartu behar dute Euskadiko federazioa. Orain dela bi urte, Frantzia mundialak jokatu zirenean, lortzear egon zen, baina Espainiako gobernuak ere tartean sartzen da.

Josu Aranberri

Aurten ere **Noaua!** aldizkaria etxe guztietara banatzea erabaki zuen Batzar Orokorrak

Noaua! Kultur Elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen joan den martxoaren 22an udaletxeko Batzar Aretoan. Uste baino jende gutxiago bildu zen bertan. Eguraldi onaren aitzakian edo 325 bazkideetatik 32 besterik ez ziren azaldu. Hala ere erabaki garrantzitsuak hartu ziren azalduetako bazkideen onespenearekin.

Noaua! Kultur Elkartea eratu zen aktaren onarpenarekin eman zitzaion hasiera batzarriari. Jarraian 1996ko balantzea egin ondoren zuzendaritza batzordeak 1997. urterako aurreikusten duena azaldu zuen. Batzarraren onespenearekin 23 ale kaleratuko dira aurten, iaz baino 13 gehiago, eta hauekin batera zenbait gehigarri joatea ez harritu. 325 bazkide bagara ere **Noaua!**-k ez du mugarik jartzen. Bazkide kanpainak garrantzitsuak dira kopurua haunditzeko eta hoiel gogor eutsi behar zaiela argi gelditu zen. Bazkide kanpaina bezain garrantzitsutzat jotzen zen bazkideentzako eskaintzak lantzea. Jadanik **Zumetan merkeago jan** dezake **Noaua!**-ko bazkideek, baina hemendik aurrera bide hori sakondu beharra garbi gelditu zen martxoaren 22an egin zen Batzar Orokorrean.

Aitor Pikabea, Noaua!-ko diruzainak, iazko urtea amaitzean elkartearen egoera ekonomikoa nola gelditu zen azal-

1996ko martxoaren 9an egin zen aurkezpen bileraren irudia duzue hau. Jadanik urtebete pasa da eta Noaua! aurreruntz doa



du zuen. Balantzea positibotzat jo zuen **Aitorrek**. Kontutan hartu behar da Elkartea sortu berria dela, eta lehen urtea izan eta balantzea positiboa izatea ez da txantxetako gauza.

Aurtengo urteko aurrekontuari begira aldaketa batzuk aurreikusituen. "*23 ale kaleratzean inprenta gastuak milioi eta erdi haundituko dira eta honek gastuak igo araziko ditu*". **Noaua!**-ren aurrekontua bost milioiak gaituko ditu.

Batzordekide berriak

Zuzendaritza batzordean zenbait aldaketa izan ziren. Alde batetik, **Unai Lataillade, Mertxe Olaizola** eta **Arantzazu Aranburu** batzordetik irten dira. **Sartu** direnak, berriz, **Zaloe Arnaiz, Olatz Matxain** eta **Idoia Agirre** dira. Azken hiru hauez gain beste hauek jarraituko dute batzordean:

Andoni Sagarna, Garikoitz Udabe, Aitor Pikabea, Olatz Altuna, Iker Muguruza, Maite Zubeldia, Juanjo Gomez, Jakoba Errekondo eta **Josu Aranberri**.

Azkenik erabaki garrantzitsua hartu zen batzarraren amaieran. **Aurten Noaua! aldizkaria usurbildar guztiei iritsiko zaie etxera** ere. Aurreko Batzar Orokorrean 1997an aldizkaria bazkideei bakarrik edo herritar guztiei banatu ez zen zehaztu. Zuzendaritza Batzordea orain arte bezala jarraitzearen alde azaldu zen eta Batzar Orokorrean bildu ziren bazkideak ere bai. Aldizkaria etxe guztietara banatu ezker laguntza ekonomikoa lortzea errazagoa izateaz gain, Usurbilen euskararen normalizazioa lortzeko ezinbestekoa ikusten da **Noaua!** etxe guztietara iristea.

Josu Aranberri

Barruko arropa-linak eta
etxe arropak

Aritzeta kalea, 1
telefonoa: 36 17 87



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala



Zumartegi industrialdea
Aitezarra kalea, 1
Tel.: 36 10 79 Usurbil

ZENDOIA - ENEA



TABERNA



Goizeko 7etatik irekia

Gosariak, hamaitetakoak,
eguneroko menuak eta
bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 36 25

Horrelako eguraldiekin herri inguruetan ibili gara, eta Kalezar aldean **Harane futbol zelaia** begira jarrita, bi galdera etorri zaizkigu burura:

Noiz egin zuten futbol zelaia eta zenbat metro karratu ditu?

Galderaren erantzuna badakizu, kale nagusiko gure egoitzara hurbildu eta bota zure erantzuna gure buzoira!



Inaxio Pellejerori egokitu zitzaion aurreko aleko **Antxeta** jatetxeko afaria. "Galdera erraza iruditu zitzaigun, eta erantzuna bidali genuen besterik gabe". Lan erraza, zalantzarik gabe. Eta afaltzera joatea... errazagoa oraindik. On egin!

Aurreko aleko argazkian agertzen direnak hauexek dira (goitik hasita eta ezkerretik eskuinera): **Jose Mari anaia, Gonzalo Gutierrez, Juan Unanue, Esnaola, Zubiria, Alejandro Arrojeria, Patxi Beristain, Joxe Ramon Ibargoiien, Joxe Unanue, Sebastian Korta, Hernani, Alkorta, Mikel Izagirre, Jesus Santxo, Xabier Olasagasti, Arteaga, Markos Iradi, Joxe Anjel Ibargoiien, Joxe Lorenzo, Fernando Rodriguez, Makario Rodriguez, Martin Araolaza, Inaxio Sanchez, Toribio Arruti, Batalla, Lontxo Ibargoiien, Jose Luis Sagardia, Jose Antonio Curiel, Joxe Ramon Izeta, Sanchez, Ixidro Bengoetxea, Patxi Azpiroz, Karlo Kañibano, Urikola, Karrantza, Karlos Alonso, Mikel Errekondo eta Juan Inaxio Zubeldia.**

Izen zerrenda luzea da, baina guri iritsi zaigun erantzuna bakarra izan da, beraz berarentzat izango da **Bordatxo** tabernako bi pertsonentzako afaria; **Maria Dolores Azpillagarentzat**, hain zuzen ere. Zorionak eta on dagizula!

Komikia



Manel

Haur jantziak



Kale Nagusia, 2 Tel. 36 59 43

**TX
TEG**

PINTXO BEREZIAK
ETA AUKERA ZABALA

Aritzeta, 2

Tel.: 37 10 42

**BITXITEGI
ARREGI
ORDUKARI**



Kale Nagusia, 2
Tif. 36 40 58

APIRILAK 4 ostirala

- **Akerra Gaztetxeak Dantzut** eta %30 taldeen **kontzertua** antolatu du gaztetxean, gaueko **22.00**etan. Sarrera 300 pezeta.

APIRILAK 7 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**-en konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.
- **Euskal Presoak Euskal Herrira gazte ekimenaren** bilera egingo da Udarregi zaharrean arratsaldeko **19.00**tan.

APIRILAK 12 larunbata

- **Gure Pakea** Zahar egoitzak **Lourdesera** irteera antolatu du. Irteera goizeko 8.15 aldera izango da, Udaletxe aurretik.
- **Usurbil Intsumituak Afari Intsumitua** antolatu du "Intsumisioa kalean" (Bordatxo aurrean). Gaueko **21.30**etan. Txartelak Txiribogan, Bentan eta Zendoian.

APIRILAK 14 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**-en konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

APIRILAK 16 asteazkena

- **Andatza K.E.k diapositiba emanaldia** antolatu du.



Zumarte musika eskolak kontzertu pedagogikoak antolatu ditu. Bertan, **Zumarte** eta Errenteriako **Oinarri abesbatzek** parte hartuko dute. **San Salvador elizan**, arratsaldeko **18.30**etan.

Bentan **Pisc** (5.752 m.), **Chopicalpi** (6.354 m.), **Huascaran** (6.768 m.) eta **Alpamayo** (5.947 m.) mendietako **igoerak** ikusteko aukera izango dugu. **Udarregi zaharrean**, arratsaldeko **20.00**etan.

Bazkarirako izen ematea **apirilaren 6a** baino lehen egin behar da.

LANPOSTUAK

- ☛ **Usurbilgo Udalak lorazain laguntzaile** bat behar du. Egun osorako eta sei hilabete-tarako. Eskakerak aurkezteko **epea: 1997-4-8**, hau barne, goizeko 9.00etatik 13.00etara. **Oinarriak** eta eskaera oinarriak **Udal Idazkaritzan**.
- ☛ **Altzoko Udala** (Altzo, Abaltzisketa, Amezketa, Baliarrain, Ikaztegieta eta Oreindaingo Udalak barne). **Gizarte zerbitzuetarako langile** bat behar da. Epea: **97- 4-18**. Argibide gehiago G.A.O. 55. zenbakian.

OHARRAK

- ✓ **Emakumezkoaren monedero** marroia aurkitu dute **Bizkarre auzoan**, 1997- 3- 26. Dirua eta loteria dezimo bat dauka. Udaltzaingora deitu.
- ✓ **Andatzpe Elkarteak** urteroko **Batzar Orokorra** egingo du **apirilaren 13an** goizeko **10.30**etan **Udaletxeko Pleno Aretoan**; ondoren, **bazkaria** egingo da soziedadean. Batzarrean **gai garrantzitsuak** landuko dira.

GONZAI EHORZKETAK



Era guztietako zerbitzuak
EGUNEKO 24 ORDUETAN
Olarriondo, 5 - 8
☎ 36 21 63

Egin zazu
Noaua!n
zure
publizitatea

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)



San Esteban kalea, 1
Usurbil

Tlf 36 00 80

Kirol agenda

APIRILAK 5 larunbata

Jubenil mailako **eskubalo**i partidua (N): **Urnietako- Usurbil K.E.**

Sanboko Gipuzkoako tornea. **Errenteria- Usurbil. Oiardo** kiroldegian. Usurbilgo judo taldeak eta Sanboko Federazioak antolatuta.

Areto Futboleko partidua (M): **Cafe Boulevard- Antxeta.**

APIRILAK 6 igandea

Jubenil mailako **futbol** partidua (M): **Oiartzun- Usurbil F.T.**

Sanboko Gipuzkoako tornea. **Errenteria- Usurbil. Oiardo** kiroldegian. Usurbilgo judo taldeak eta Sanboko Federazioak antolatuta.

Hondartzako futbol partidua (M): **Fama- Aginaga**

Sagardotegia.

APIRILAK 12 larunbata

Usurbil, Lasarte-Oria, Hernani eta Urnietako kiroldegiek **I. Buruntzaldea Aerobik-Marathoi Popularra** antolatu dute. **Andoaingo polikiroldegian** arratsaldeko **16.30**etan. Kiroldegi hauetako taldeetan daudenentzat parteharitzeak 200 pta kostako zaie, besteentzat 750 pta. **Izen ematea** kiroldegi hauetan, **apirilaren 9** arte.

Kadete mailako **eskubalo**i partidua (N): **Urnietako- Usurbil K.E.**

Jubenil mailako **eskubalo**i partidua (N): **Usurbil K.E.- Leizaran.** Oiardo kiroldegian, arratsaldeko **16.30**etan.

Kadete mailako **eskubalo**i par-

tidua (M): **Leizaran- Usurbil K.E.**

Bigarren nazionalako **eskubalo**i partidua (M): **Urnietako- Usurbil K.E.**

Areto futboleko partidua (M): **Usurbil- Gure Txokoa.**

APIRILAK 13 igandea

Senior mailako **saskibalo**i partidua (M): **Beti Gazte S.T.- usurbil S.T.**

Futbol partidua (N): **usurbil F.T.- Alde Zaharra K.E.**

Bigarren erregional mailako **futbol** partidua (M): **Urnietako K.E.- Usurbil F.T.**

Jubenil mailako **futbol** partidua (M): **Usurbil F.T.- San Ignacio C.D.A.**

E maitzak

ESKUBALOIA

Martxoak 22-23

Usurbil- Urnietako, 11-11 (kad,n)
Usurbil- Hondarribia, 28-29 (jub,m)
Urola- Usurbil, 9-26 (jub,n)
Hondarribia- Usurbil, 20-24 (kad,m)
El Pilar- Usurbil, 26-25 (2.naz,m)

SASKIBALOIA

Martxoak 22-23

Usurbil- Kostkas, 41-55 (seniorrak)

FUTBOLA

Martxoak 22-23

Oiartzun- Usurbil, 1-3 (jubenilak, m)
Usurbil- Mariño, 1-3 (erreg., m)

ARETO FUTBOLA

Martxoak 22-23

Antxeta- Gubi Zarautz, 1-1 (m)

HONDARTZAKO FUTBOLA

Martxoak 22-23

Aginaga Sagardotegia- Cristina Junior, 7-1 (m)



BAZKIDE TXARTELA

5.000 PEZETAK URTE OSORAKO

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____





Egioleta baserria z/g
USURBIL

Tel. 36 63 27



Leku lasaia eta giro atsegina.

Asteko zazpi egunetan zabalik.



Sagardotegiko menua
bazkari eta afarietan;
bakailaoa eta haragia

Etxeko sagardoa
dastatzeko aukera

